



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA
2016/02/12

Ahaldun Nagusiak 2016ko lehenengo hiruhilekoaren diru-bilketara itxaroteko esan deutse batzarretako taldeei, aurrekontuen doikuntzen ganeko erabagiak hartu aurretik

Bizkaiko diru-bilketea 6.515,4 milioi eurokoa izan zan 2015ean, hau da, aurreko urtean Foru ogasunak izan eban diru-bilketea baino %0,5 altuagoa eta 2014ko urrian egin zan aurreikuspena baino %5,3 baxuagoa, Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak gaur adierazo dauenez. Ahaldun Nagusia berak eskatuta agertu da Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen aurrean, atzo egin zan Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren (HDEK) batzarraren barri emoteko. “Egia esan behar bada, ez dira bete 2014ko urrian egin ziran diru-bilketako aurreikuspenak”, adierazo dau Rementeriak.

Oposizinoko talde politikoek, diru-bilketaren jatsiera horrek “murrizketak” edo “ez gauzatzeak” ekarriko ete dituan egin dituen itaunei erantzunez, Ahaldun Nagusiak adierazo dau beharrezkoa dala BEZ moduko zergen diru-bilketek lehenengo hiru hilekoan izango daben portaerea ezagutzea, horri buruz berba egiten hasi aurretik. “Diru-bilketea eta joerea ikusita, erabagiak hartu behar diran ala ez ikusiko dogu”, esan dau.

Ahaldun Nagusiak azaldu dauenez, Bizkaiak 4.265 milioi euro jarri beharko ditu EAEko aurrekontuan, aurrekontu osoaren %50,54. Orain denpora gitxi onartu dan Ekarpenen Lege barriari jagokonez, Rementeriak “solidarioa, adostua eta akordioan oinarritutakoa” izan behar dala esan dau.

Eduardo Andrés batzordekide popularrak, aurretik egindako aurreikuspenagaz alderatuta diru-bilketak izan dauen jatsierara egokitzeko aurrekontuan egin beharko diran “egokitzapenen” ganeko itauna egin deutso Ahaldun Nagusiari.

Podemos Bizkaiak, Mikel Isasi batzordekidearen ahotik, Bizkaiko Foru Aldundiak pertsonen zuzendutako politikak egin behar dituala defendidu dau, eta horretarako beharrezkoa dala diru gehiago biltzea, enpresa handiei zergak igonez.

Alexia Castelo PSE-EEko ordezkariak, aurreikusitakoagaz alderatuta izandako jatsierak izango dituan ondorioei buruzko azalpenak eskatu deutsaz Unai Rementeriari. “Jatsiera horren eragile nagusia erregaien prezioen beherapena izan da”, esan dau.

EH Bilduko Joseba Gezuraga batzordekideak bere taldearen ardurea adierazo dau, diru-bilketak txikiago horrek Eusko Jaurlaritzan eta Udalak moduko beste erakundeetan izango dauen eragina dala eta. Bere eretziz, horrek eraginak izango ditu, bata bestearen ostean, “Aldundian, Udalkutxan eta Gizartekutxan”. Gezuragak esan dau bere taldea ez dagoala



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ados gaur egun dagoan diru-bilketa sistemagaz, kontsumoan oinarrizko dalako “eta hori ez dagoalako gure eskuetan”.

Jon Andoni Atutxa batzordekideak eszenatokiaren konplexutasuna azaldu dau, egoera aldatzeko ahalmena urria dalako, eta kasu batzuetan ezinezkoa dalako ezer aldatzea. Adibide moduan petrolio upelaren prezioa edo hidrokarburoen prezioa jarri dau. “Aldundiaren ardura diran zergen portaerea aurreikusitakoa izan da, gitxi gorabehera”.

“BIZKAIA GOAZEN 2030” ESTRATEGIA

Aurretik, Unai Rementeriak, “Bizkaia Goazen 2030” estrategia aurkeztu dau Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeko taldeen ordezkarien artean. Ekintza plan horrek 120 jarduketa jasoten ditu, baxenaren egunekaz, inbertsinoakaz eta jasotzaileakaz, Bizkaia hobea lortu ahal izateko.

“Estrategia jardura ekonomiko eta kalidadeko enplegu gehiagoko lurraldea lortzera bideratzen da; gizararen eta lurraldearen ikuspegietatik kohesionatuago egongo dan Bizkaia, guztiontzat aukera berberak eskiniko dituana; mundura, aukera globaletara, lotuagoa; eta administrazio modernoagoa, hurbilekoagoa eta arduratsuagoa izango dauden Bizkaia”, defendidu dau.

“Gure eginbeharra horretan ahalegintzea da. Arazoei aurre egin behar deutsegu eta aukerak baliatzeko testuinguruak finkatu behar doguz, eta Bizkaia Goazen 2030 tresna egokia da horretarako. Orain arte ezagutu dogun guztia gaintzen dauden gobernu zabaleko proposamenaren aurrean gagoz”.

“Bizkaia Goazen 2030” strategiak batzen dituan 120 ekintzen artean honek azpimarratu daitezke: aurton 112 lanpostu barrirako enplegu eskaintza publikoa; eraginkortasunerako plana Administrazioan, zerbitzu orokorren gastua %5 eta %10 artean murrizteko datozan lau urteetan; Elkarlanean izeneko programea, lurraldeko enpresen arteko aliantzatan, fusioetan eta partzuergoetan oinarritutako politikari aurre egiteko; Energy Intelligence Center deritxona martxan jarrea, Bizkaiko energiaren sektorea dinamizetako; enpresak nazinoartera zabaltzeko 800 proiekturi laguntzea emotea; suhiltzaileen parke barriak eregitea Enkarterrin eta Busturialdean; lizitazio elektronikoko proiektu politikoa, burokrazia eta paperez egiten diran administratzenoko izapideak murrizteko.

Bide sarearen arloan Gerediaga-Elorrio ardatzaren eta Ermuko saihebidetako zatien bukaera jasoten da; eta hobakuntza lanak hainbat errepidetan: Derion, Santo Domingon, Arenako zubian, Durangon, Zallan, Usansolon, Amorebietan, Galdakaon, Lemoa-Zeanurin, Sopuertan edo Bermeon.

Horrez gain, “Bizkaia Goazen 2030” strategiak Aldundiaren arreta integraleko bulego bi martxan jarrea be jasoten dau, Durangaldean eta Busturialdean, 120.000 pertsonari zerbitzua emoteko; iruzurraren kontrako urteroko hiru plan –Ogasunean bi eta gizar-



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

zerbitzuetan beste bat-; bardintasunerako eta bateraezintasunetarako foru arauak; edo Bizkaiko biztanle helduak euskalduntzeko laguntza ekonomiko lerroa.

Bizkaiko Talde Popularreko Eduardo Andrések kritikau egin dau Ahaldun Nagusiak aurkeztu dauen estrategia 15 urtetarako egitasmoa izatea. “Harroputz samarra emoten dau hamabost urtetan Aldundiak kolore politiko berbera izango dauela gauza egintzat hartzea”.

Mikel Isasi Podemos Bizkaiaiko ordezkaria aldaketa estrukturalaren alde agertu da, bere eretxiz Bizkaiko Foru Aldundiak planteau dauen estrategiak “ez ditualako sakoneko aldaketak ikutzen”. Bere esku-hartzean aberastasunaren gaur egungo banaketeagaz amaituteko aldaketa estrukturalak behar dirala adierazo dau, eta aldaketa horreek ez dirala jasoten Bizkaia Goazen 2030 estrategian”.

Alexia Castelo PSE-EEko batzordekideak azaldu dauenez, bere taldea bat dator diagnostikoagaz, eta txalotu egin dau planteautako estrategia “gizarteagaz egiten dan kontratua izatea” bertan lehentasunak ezarriz. “Asmo handiko programaren aurrean gagoz, eta ekintzez betetako lau urtetarako konpromisoa erakusten dau, aurrekontuetako partida zehatzakaz”.

EH Bilduko Josu Unanuek kritikau egin dau estrategian ez dala jasoten zelangoa izango dan proponiduten dan herritarren partaidetzea. Bere taldearen eretxiz hori prestetako orduan ez dira kontuan hartu tokietako agentziak, sindikatuak eta beharginak. “Badagoz diagnostikoan agertzen ez diran eta politika egokia eskatzen daben pobreziari eta bazterketari buruzko datuak”.

Euzko Abertzaleak taldeko Jon Andoni Atutxaren eretxiz oso garrantzitsua da Bizkaia Goazen 2030 estrategia neurtu eta ebaluau behar dan kontratu moduan planteetea, horri buruzko azalpenak emon behar izatea. “Plan hori laburbiltzen dauen berbea konpromisoa da”, esan dau, amaitzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

12/02/2016

El Diputado General remite a los grupos junteros a la recaudación del primer trimestre de 2016 antes de tomar decisiones sobre ajustes presupuestarios

La recaudación de Bizkaia ascendió en 2015 a 6.515,4 millones de euros, lo que supone un incremento del 0,5% respecto a la recaudación de la hacienda foral en el año anterior y un descenso del 5,3% respecto a la previsión realizada en octubre de 2014, según ha señalado hoy el Diputado General de Bizkaia, Unai Rementería, que ha comparecido, a petición propia, ante la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia para informar sobre el desarrollo del Consejo Vasco de Finanzas (CVF) celebrado ayer. “La realidad es que no se han cumplido las previsiones recaudatorias realizadas en octubre de 2014”, ha señalado Rementería.

A las preguntas realizadas por los grupos políticos de la oposición sobre si este descenso de la recaudación implicará “recortes” o “inejecuciones”, el Diputado General ha explicado que es necesario conocer el comportamiento en el primer trimestre de la recaudación de impuestos como el IVA antes de hablar en estos términos. “En función de la recaudación y de la tendencia tendremos que tomar decisiones o no”, ha señalado.

El Diputado General ha explicado que a Bizkaia le corresponde aportar 4.265 millones de euros al presupuesto de la CAV, el 50,54% del total. Respecto a la nueva Ley de Aportaciones, actualmente prorrogada, Rementería ha sostenido que tiene que ser “solidaria, consensuada y basada en el acuerdo”.

El juntero popular Eduardo Andrés ha interpelado al diputado general por las “adecuaciones” que será necesario realizar para ajustar el presupuesto a la caída de la recaudación respecto a la estimación realizada con anterioridad.

Podemos Bizkaia, en palabras de su juntero Mikel Isasi, ha defendido que la Diputación Foral de Bizkaia debe hacer políticas dirigidas a las personas, para lo que se hace necesario lograr una mayor recaudación vía subida de impuestos a las grandes empresas.

Alexia Castelo, representante del PSE-EE, ha solicitado a Unai Rementería explicaciones sobre cómo va a afectar el descenso de recaudación respecto a la previsión. “Un descenso causado principalmente por la bajada de los precios de los carburantes”.

Joseba Gezuraga, juntero de EH Bildu, ha mostrado la preocupación de su grupo por cómo va a afectar esta menor recaudación respecto a lo previsto en otras instituciones como Gobierno Vasco y ayuntamientos. En su opinión, tendrá consecuencias en cascada



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

en “Diputación, Udalkutza y Gizartekutza”. Gezuraga ha mostrado su disconformidad con el actual sistema de recaudación que pone el acento sobre el consumo “algo que no está en nuestras manos”.

El juntero jeltzale Jon Andoni Atutxa ha puesto de manifiesto la complejidad del escenario, debido a que la capacidad para alterar la situación es escasa y en algunos casos nula. Ha puesto como ejemplo el precio del barril del petróleo o el precio de los hidrocarburos. “El comportamiento de los figuras impositivas que son responsabilidad de esta Cámara ha sido más o menos el previsto”.

ESTRATEGIA “BIZKAIA GOAZEN 2030”

Previamente, Unai Rementeria ha presentado ante los representantes de los grupos en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales la estrategia “Bizkaia Goazen 2030”, un plan de acción que incluye 120 actuaciones con fechas, inversiones y destinatarios concretos para avanzar hacia un Bizkaia mejor.

“La estrategia se orienta a lograr un territorio con más actividad económica y más empleo de calidad; una Bizkaia más cohesionada social y territorialmente, con las mismas oportunidades para todos; más conectada al mundo, a las oportunidades globales; y una Bizkaia con una administración más moderna, cercana y responsable”, ha defendido.

“Nuestra obligación es intentarlo. Tenemos que afrontar los problemas y fijar los contextos para aprovechar las oportunidades y para ello Bizkaia Goazen 2030 es una buena herramienta. Estamos ante una propuesta de gobierno abierto que trasciende todo lo conocido hasta ahora”.

Entre las 120 acciones de la estrategia “Bizkaia Goazen 2030” destacan una oferta pública de empleo para 112 nuevas plazas este año; un plan de eficiencia en la Administración que reduzca el gasto de servicios generales entre un 5% y un 10% en los próximos cuatro años; el programa Elkarlanean para abordar una política de alianzas, fusiones y consorcios entre las empresas del territorio; la puesta en marcha del Energy Intelligence Center para dinamizar el sector energético de Bizkaia; el apoyo a 800 proyectos de internacionalización de empresas; la construcción de nuevos parques de bomberos en Enkarterri y Busturialdea; un proyecto piloto de licitación electrónica para reducir la burocracia y los trámites administrativos en papel.

En el ámbito de la red viaria se recoge la finalización del eje Gerediaga-Elorrio y de los tramos de la variante de Ermua; obras de mejora en carreteras de Derio, Santo Domingo, puente de la Arena, Durango, Zalla, Usansolo, Amorebieta, Galdakao, Lemoa-Zeanuri, Sopena o Bermeo.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La estrategia “Bizkaia Goazen 2030” recoge, asimismo, la puesta en marcha de dos oficinas de atención integral de la Diputación en Durangaldea y Busturialdea para dar servicio a 120.000 personas; tres planes anuales contra el fraude –dos en Hacienda y otro en servicios sociales-; las normas forales de igualdad e incompatibilidades; o una línea de ayudas económicas para la euskaldunización de la población adulta de Bizkaia.

Eduardo Andrés, del Grupo Popular Vizcaíno, ha criticado que la estrategia presentada por el Diputado General sea un programa para 15 años. “Es pretencioso dar por hecho que la Diputación va a tener durante tres lustros el mismo color político”.

El representante de Podemos Bizkaia Mikel Isasi ha abogado por un cambio estructural, ya que en su opinión la estrategia planteada por la Diputación Foral de Bizkaia “no toca los cambios de fondo”. En su intervención ha hecho alusión a que para acabar con la actual distribución de la riqueza se necesitan cambios estructurales, que no se recogen en la Estrategia Bizkaia Goazen 2030”.

La juntera del PSE-EE Alexia Castelo ha explicado que su grupo comparte el diagnóstico y ha aplaudido que la estrategia planteada sea un “contrato con la sociedad” en el que se fijan las prioridades. “Estamos ante un programa ambicioso que compromete cuatro años de acciones con partidas presupuestarias concretas”.

Josu Unanue, de EH Bildu, ha criticado que en la estrategia no se recoja cómo va a ser la participación ciudadana propuesta. Ha manifestado que en opinión de su grupo no se ha contado con las agencias locales, sindicatos y trabajadores. “hay datos de pobreza y exclusión que no aparecen en el diagnóstico y que requieren de una política adecuada”.

Por el Grupo Nacionalistas Vascos Jon Andoni Atutxa ha considerado relevante el hecho de que la Estrategia Bizkaia Goazen 2030 se plantee como un contrato que debe ser medido y evaluado, sobre el que hay que rendir cuentas. “La palabra que resume este plan es compromiso”, ha concluido.